

OINARRI ERREGULATZAILEAK LAGUNTZAK EMATEKO GARAPEN BIDEAN DIREN HERRIALDEETAKO POPULAZIOETATIK EGOERA SOZIAL AHULEAN DAUDEN HORIEN OINARRIZKO BEHARRIZANAK ASETZEA HELBURU DUTEN PROIEKTUETARAKO (2021. urtea)

1.- Xedea

1.1.- Diru-laguntzek garapen bidean dauden herrietako populazio pobretuaren oinarrizko beharrak zuzenean asetzeari dute helburu; haiekin batera, herritarrak sentsibilizatzeko jardueren programa bat izanen da, komunitatearen eta Estella-Lizarrako elkarten parte-hartzea nazio arteko elkartasunean bultzatuko duena.

1.2.- Garapen bidean edo trantsizioan diren herrialde eta lurraldetzat joko dira, eta beraz deialdi honetako funtsak jaso ahalko dituzte, Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) onuradunak diren herrialdeen zerrendan sartutakoak. ELGA Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen mendeko Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) ezarri du zerrenda hori.

2.- Onuradunak

2.1.- Diru-laguntza eskatu ahal dute GGKEek (garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak) eta elkartasunerako erakundeak, irabazi asmorik gabekoak eta erakundearen berriazko helburutzat dutenak, beraien estatutuena arabera, garapenerako kooperazioarekin eta herrien arteko elkartasunarekin zerikusia duten jarduerak egitea.

2.2.- Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Pertsona juridikoak izatea, legerari jarraikiz eratuak eta irabazi-asmorik gabekoak. Inskribatuak egonen dira, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Nafarroako Gobernuaren elkarten erregistroan edo Lankidetzarako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearen erregistroan.

b) Nafarroako Foru Komunitatean edukitzea egoitza edo ordezkari iraukorra eta Lizarra hiriko eremuan aktibo izatea, bai lankidetzaren programen kudeaketari dagokionez, bai laguntza humanitarioko programen kudeaketari dagokionez, bai garapen bidean dauden herrialdeen egoerari buruzko sentsibilizazioa sustatzeari dagokionez. Horretarako, eskaera aurkeztu aurreko 36 hilabeteetan hiri honetan egindako jarduerak dokumentatu beharko dituzte.

c) Bere helburu sozialak bete ahal izateko egitura, esperientzia eta antolakuntza egokiak izatea.

d) GGKE eskatzaileak proiektua egin nahi den tokian bertako bazkide edo kontrako alderdi bat izatea, zeinak proiektua materialki gauzatuko duen. Aipatu bazkidea administrazio publiko bat edo GGKE bat izan ahal da, GGKE eskatzaile beraren ordezkari erreferentziako herrian barne sartzen delarik. Pertsona juridikoek herrialde onuradunaren legeak bete beharko dituzte.

e) Estella-Lizarrako Udaleko deialdi honen bidez diru-laguntzak jaso badira aurreko edizioetan, aipatu laguntzak jasotzeko jarritako betebeharrak eguneko edukiko dituzte. Horrela gertatzen ez bada, espresuki Deialditik kanpo geratuko dira.

f) Zerga guztiak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak izatea.

g) Deialdi honetatik kanpo utziko dira deialdi hau aurkezteko egunaren aurreko 36 hilabeteetan Lizarran jarduerarik izan ez duten GGKEak. Hau da, bazterturik

geldituko dira epe horretan Estella-Lizarran sentsibilizazio, laguntza humanitario edo lankidetzaren arloan garrantzi publikoko jarduera bat egin dutela frogatzen ez duten GGKEak

h) Ezin dira deialdi honetako diru-laguntzen onuradun izan Diru-laguntzei buruzko, azaroaren 17ko, 38/2003 Legearen, 13.2 artikuluan araututakoaren arabera aipatzen diren entitateak.

3.- Diruz lagun daitezkeen egitasmoak

3.1.- Deialdi honetako jarduteko lehentasunezko arloak honako hauek dira:

a) Ura eta saneamendua: ur horniduraren sistemak eta zerbitzuak eta oinarrizko saneamendurako azpiegiturak.

b) Oinarrizko hezkuntza: oinarrizko ekipamendua, irakasleen prestakuntza, lehen eta haur hezkuntza, helduen oinarrizko hezkuntza, antolaketa komunitarioa hobetzeko trebatzea.

c) Oinarrizko osasuna: osasun-heziketa, lehen mailako arretako osasuna, oinarrizko azpiegitura, nutrizioa eta infekzio-gaixotasunen prebentzioa eta kontrola.

d) Landa garapena, elikadura segurtasuna eta elikadura burujabetza.

3.2.- Deialdian parte hartuko duten proiektuek honako baldintza hauek beteko dituzte:

a) Deialdi honetan adierazitako helburuekin eta asmoekin bat etortzea.

b) Helburuei, jardueri eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideei buruz nahiko informazioa ematea.

c) Proiektua gauzatzeko ardura duen erakundearen (bertako kontrako alderdia) helburuei eta lan esperientziari buruz behar adina informazioa ematea.

d) GGKE horrek proiektua sakonki ezagutzen duela erakustea eta tokian tokiko GGKEarekin edo komunitate hartzailearekin ezarriko diren harremanak azaltzea, lagundutako egintzaren jarraipena egiteko.

e) Proiektuek onuradunen parte hartze zuzena eduki beharko dute, egitean garatzean eta gauzatzean, hortaz, herri horietako herritarrak sustatutako jardueraren subjektuak eta protagonistak bilakatuko dira.

f) Genero ikuspuntua proiektu osoan sartzea, era koherentean, integralean eta zeharkakoan.

g) Ingurumenaren gaineko eragina kontuan hartuko da bereziki eta naturako baliabideen erabilera jasagarria.

h) Giza-eskubideen sustapena eta defentsa.

i) Herritarrak sentsibilizatzeko jardueren programa bat aurkeztea, Estella-Lizarrako biztanle motas guztiei zuzenduta.

j) Proiektuek hirugarrenei zeharka ematen ahal dizkieten mozkinak (adibidez, teknikarientzako ordainsariak, materialen erosketa, ekipamenduak, baliabide teknologikoak, eta abar) ahal den neurrian jarduera jasotzen duten herrialdeetarako erabiltzen saiatuko da.

k) Sendagaiak dohaintzan ematearekin edo jendearen eskura jartzearekin zerikusia duten jarduerak dituzten proiektuak Osasunaren Mundu Erakundeak 1996an sendagaiak dohaintzan emateari buruz ezarritako jarraibideei lotuko zaizkio.

l) Finantzaketaren gutxienez 100tik 20 beharko da izan entitate beraren funts edo fondoetatik etorria, edo beste administrazio publiko edo entitate batzuek emana.

m) Diru-laguntza 2021. urtean gauzatu behar izatea eta Lizarrako Udalak emandako diru-laguntzaren aurrerakina sartu eta 12 hilabete baino gehiagoko epea ez gainditzea.

LAURGARRENA eskariak aurkeztu, dokumentazioa eta epeak

4.1.- Proiektuak aurkeztuko dira deialdiaren eskabide-ereduaren arabera. Proiektu bat aurkezten bada eskabide-ereduari egokitu gabe deialdiak xedatzen dituen baldintzen arabera, baztertua geratuko da.

4.2.- Eskabideak Udalaren Herritarren Karpeta – Lizarrako Udalaren Egoitza Elektronikoa (Lizarra-lizarra.com) egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, eta egiaztagiriaren kopia bat bidali beharko da helbide elektronikoa honetara: Juventud@estella-lizarra.com, honako dokumentazio honekin batera:

- a) Entitatearen estatutuak
- b) Identifikazio fiskaleko txartela
- c) Zuzendaritza-Batzordearen osaketa edo organo baliokidearen ziurtagiria
- d) Inskripzioaren ziurtagiria, bere izaera juridikoa dela-eta dagokion Erregistroan.
- e) Egiaztagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), Gizarte Segurantzaren kotizazioetan eta zerga beharkizunetan eguneratuta egotearen dokumentazioa, indarrean dauden arauen arabera.
- f) Banku-ziurtagiria entitatearen diru-transferentzia abonatzeko kontua egiaztatzen duena.
- g) Izaera bereko diru-laguntza edo laguntzen esparruan hasitako inolako itzularazte edo zehapen prozeduratan sartuta ez dagoelako adierazpena.

Ez da beharrezkoa izanen a)-b)-c) eta d) ataletan seinalaturiko dokumentazioa aurkeztea, eskatzaileak aurreko deialdietan aurkeztu baditu eta aipatu dokumentazioa, dagoeneko, aurkeztua izan bada. Horrela gertatu izan balitz, dokumentazioaren ordezkari, GKEaren edo Elkartasun Erakundearen ordezkari batek egindako zinpeko aitortza aurkeztuko da. Aitortza horretan adieraziko da aipatu dokumentazioa ez dela inolara ere aldatua izan eta aurkeztu bezala jarraitzen duela. Aipatu ataletarako aurkeztu den dokumentazioan aldaketaren bat gertatu bada, orduan nahitaez dokumentazioa berriro aurkeztu beharko da.

4.3.- Proiektuak hilabeteko epearen barnean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia NAOn argitaratzen den egunetik hasita.

4.4.- Urtearen amaieran banatu gabeko funtsak gelditzen badira, organo eskudunak horiek erabiltzeko modua izanen du.

5.- Herritarrak sentsibilizatzeko programa

5.1.- GGKEek eta Elkartasun Erakundeek herritarrak sentsibilizatzeko Programa bat aurkeztu beharko dute, komunitatearen eta Estella-Lizarrako elkartearen parte-hartzea sustatuko duena nazioarteko elkartasunean.

5.2.- Programak populazioaren sektore ezberdinetara eta kolektiboetara zuzenduko dira, honako irizpide hauen arabera:

- a) Jarreraren eta portaeraren aldaketa erraztea, herrien arteko desoreka ekonomikoa, soziala eta kulturala problemarekin zerikusia duena, eta problema

horrek dituen ondorio larriak pertsonen bizi-baldintzen gainean edo pertsonak bizirik irauteko.

b) Informazio baliabideak eskaini, egiaztatuak, osagarriak eta kritikoak.

c) Iparraldean parte-hartzen eta presio soziala egiten erakutsi Hegoaldeko herriek beraien garapena burutu ahal dezaten.

6.- Onuradunen betebeharrak

Aurkezturiko proiektu bat Udal honek diruz laguntzen duenean, GKEak edo Elkartasun Erakundeak ondoko konpromiso hauek hartuko ditu:

a) Proiektuaren exekuzioari buruzko azken memoria aurkeztea (teknikoa eta finantzarioa), laguntza jasoko duen erakunde hartzaileak egina, erantsitako ereduaren arabera. Honekin batera, argazki-erreportaje historikoa, non proiektuaren exekuzio-faseak agertuko diren, gehienez ere urte bateko epean diru-laguntzaren aurrerakina eman zenetik.

a.1) Jasotako diru-ekarpenak Estella-Lizarrako Udalaren aurrean justifikatu beharko dira, diru-laguntza emateko oinarritzat hartu ziren helburuak kontuan hartuta, eta jatorrizko fakturak aurkeztuta eta horiei dagokien ordain-egiaztagiri edo fakturen fotokopiak dagozkien autentikotasun-ziurtagiriek batera, baita ere diru-laguntzen kopurua tokiko kideari bidali izatearen egiaztagiria eta jasotzailearen ziurtagiria, diru-laguntza jaso dutela egiaztatuz. Justifikatu beharreko gastuak izanen dira, datari dagokionez, diru-laguntza emandako datatik justifikatzeko epea bukatu bitarte.

a.2) Zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, faktura bakoitzeko BEZaren kengarritasunari buruz. BEZ kengarria ez da inoiz diruz lagunduko. PFEZren atxikipena dituzten fakturek, atxikipen horien ordainketak haziendari erantsi beharko dituzte.

a.3) Aipatu dokumentazioa aurkezten ez bada, Udalak izapideak eginen ditu itzulketa-prozedura hasteko, Diru-laguntzei buruzko, azaroaren 18ko, 38/2003 Legearen arabera, bereziki II. Tituluan ezarritakoa, eta aurrerantzean GKE edo erakunde hori hurrengo deialdietatik baztertuko da.

b) Proiektua garatzean izan litezkeen gorabeherak eta sortutako aldaketak jakinaraztea.

b.1) Aldaketa edo gorabehera horiek deialdian espero diren helburuetan eta/edo emaitzan eragina badute, populazio onuradunari, lurraldearen kokapenari, tokiko kideari eta %20 baino gehiagoko aurrekontu aldeak eskabidean aurkeztutako aurrekontuari dagokienean, Estella-Lizarrako Udalaren alde aurreko eta berariazko baimena edukiko dute.

b.2) Proiektuan funtsezko aldaketak egiteko eskabideak behar bezala arrazoituko dira, eta aldaketa horiek ekarri dituzten inguruabarrak sortu eta berehala aurkeztuko dira.

b.3) GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan aldaketarik izaten bada proiektua garatu bitartean, Lizarrako Udalari horren berri emanen zaio: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, eta abar.

c) Diru-laguntzaren jatorria jakinaraztea proiektua zabaltzeko eta publizitatea emateko erabiltzen diren baliabide guztietan. Proiektuaren hedapen idatzia edo grafikoa egiten bada Estella-Lizarrako Udaleko logotipoa erabiliko da.

d) Diru-laguntza honen GGKE eta elkartasun erakunde onuradunek aurkeztu beharko dute proiektuaren exekuzioari buruzko azkeneko memoriarekin batera, proiektuaren inguruan hirian egindako sentsibilizazio jardueren memoria.

7.- Diru-laguntza emateko irizpideak

7.1.- Diru-laguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emanen dira. Hortaz, bakarrik jarduerak diruz lagunduko dira lortutako puntuazioaren arabera eta aurrekontu-mugak eta aurrekontua baldin badago kontuan hartuta. Prozeduraren instrukziorako eta esleitzeko organo eskuduna izanen da Estella-Lizarrako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea.

7.2.- Proiektuak baloratuko dira 0 eta 100 puntu artean, honako aldagai hauen arabera:

- a) Proiektua kokatzen den herriko baldintza sozial eta ekonomikoak, GGIaren (Giza Garapen Indizea) arabera.....(15 puntu gehienez)
- b) Proiektuaren kalitate teknikoa eta horren:(25 puntu gehienez)
- Proiektuaren koherentzia, helburuen, baliabideen eta jardueren egokitzapen zuzenari buruzkoa (9 puntu gehienez)
 - Populazio onuradunaren datuak (2 puntu gehienez)
 - Adierazleren espezifikazioa (3 puntu gehienez)
 - Aurrekontua bat etortzea planteatutako jarduerekin (3 puntu gehienez)
 - Proiektuaren iraunkortasuna etorkizunean, lagundutako jarduera gauzatu ondoren: bideragarritasun politikoa, bideragarritasun teknikoa, bideragarritasun instituzionala eta bideragarritasun ekonomikoa. (8 puntu gehienez)
- c) Inplikaturako alderdien gaitasuna.....(10 puntu gehienez)
- GGKE eskatzailearen esperientzia eta haren jarraipenerako gaitasuna (2 puntu gehienez)
 - Tokian tokiko bazkideak populazio onuradunarekin duen esperientzia eta gaitasuna (2 puntu gehienez)
 - GGKE eskatzailearen eta tokiko bazkidearen arteko lankidetzaren proiektuetan (gehienez puntu 1)
 - Pertsona onuradunek parte hartzea proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzeko lanetan (2 puntu gehienez)
 - Proiektua zuzentzen zaion herritarren ordezkari den tokiko erakunde baten partaidetza edo bermea (gehienez puntu 1)
 - Estella-Lizarrako Udalak finantzaturako ekintzen jarraipena (2 puntu gehienez)
- d) Proiektuaren gizarte helburuekin eta edukiekin zerikusia dutenak:.....(10 puntu gehienez)
- Genero ikuspuntua proiektuan eranstea eta emakumeen bizi-baldintzak hobetzea eta horien eskubide eta aukerak bultzatzea (2 puntu gehienez)
 - Ingurumenaren babes orokorra eta jarduerak ingurumenera egokitzea (2 puntu gehienez)
 - Talde bereziki ahulak: herri indigenak, gutxiengo etnikoak, iheslariak eta haurrak (2 puntu gehienez)
 - Proiektuak izanen duen eragina herri hartako politiketan edo/eta zerbitzu publikoetan. (2 puntu gehienez)
 - Giza eskubideak bultzatzea eta babestea. (2 puntu gehienez)

- e) Herritarrek sentsibilizatzeko ekintzak Estella-Lizarran.....(40 puntu gehienez)
- Lankidetzeta - Kooperazioa Estella-Lizarrako edozein ikastetxerekin. Egindako ekintzak, ikastetxeko bermea. (8 puntu gehienez)
 - 2019 eta 2020. urteetan Lizarran antolatutako sentsibilizazio ekintzengatik (16 puntu gehienez)
 - 2021. urtean Lizarran egin beharreko sentsibilizazio ekintzak, deialdiaren bosgarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera (16 puntu gehienez)

7.3.- Batzorde-Baloratzailleak eska ditzake egokiak juzgatzen dituen nahi adinako txosten tekniko, deialdia behar bezala erabakitzeko.

Interesgarritzat jotzen bada, GGKEak deituko dira batzorde ebaluatzaileari proiektu ezberdinak azaldu eta argitu diezazkieten.

7.4.- Proiektuek, onartuak izateko, 7.2 puntuko aldagai bakoitzaren puntuazioaren %50 lortu beharko dute gutxienez. Diru-laguntzaren zenbatekoa lorturiko puntuazioaren eta horretarako dagoen aurrekontuaren arabera esleitu da. Entitate bakoitzak lortutako puntuazioak batu egingen dira, eta diru-laguntzaren zenbateko erabilgarria batuketa horren artean zatitu egingen da. Horrela lortutako puntu bakoitzaren balioa lortuko da eurotan. Estella-Lizarrako Udalak gehienez ere 8 proiektu finantzatzeko ditu.

8.- Diruz lagun daitezkeen egitasmoak: ezaugarri orokorrak

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira xede den jarduerarekin bat datozenak, 2019 urtean barna egindakoak.

Zehazki, deialdi honetan xedatutakoarekin bat emandako diru-laguntzek finantzatzeko proiektuen edo jardueren zuzeneko eta zeharkako kostuak estali ahalko dituzte, honako paragrafo hauetan xedatutakoaren arabera:

- a) Eraikinen eta azpiegituren eraikuntza edo zaharberritzea.
- b) Ekipamenduak, materialak eta hornigaia erostea eta garraiatzea.
- c) Tokiko pertsonalaren kostuak: bidaiak, ostatatzea eta dietak. Langileen eta onuradun diren herritarren joan-etorrien gastuak dira, esku-hartzea gauzatzeko behar direnak.
- d) Diru-laguntzek estali ahalko dute, halakorik bada, eta betiere diruz-lagundutako proiektuaren xedearekin sortutako beharra justifikatzen bada, langile boluntario erbesteratuen gastuak. Kontzeptu honengatik emandako diru-kopurua, gehienez ere, diru-laguntzaren %10 izanen da. Langile erbesteratuen gastutzak joko dira, langile mota hauek direla eta sortutako gastu guztiak (nominak, bidaiak, ostatatzea, mantenua, etab.)
- e) Tokiko giza baliabideak gaitzeko eta prestatzeko sortutako kostuak.
- f) Txandakako funtsa, onuradunei maileguak emateko erabiltzen den zenbatekoa ulertuko da. Horrelako kasuetan, zenbatekoa eta aurreikusitako itzulkinen xedea seinalatuko da, proiektu berriak finantzatzea ahalbidetuko dutenak, komunitate sustatzailearen barnean.
- g) Proiektuaren zeharkako kostuen ehunekoak ez du kopuru osoko %7 gaitutiko, zeharkako kostuak izanen dira GKEaren eta bertako kontrako alderdiaren gastu administratiboak, proiektuaren formulazioan, jarraipenean, ebaluazioan eta hedapenean sorburu dutenak. Kontu-sail independentean idatziko da proiektuaren aurrekontua banantzean.

Garapen bidean diren herrialdeetako laguntza deialdia. 2021 urtea

h) Sentsibilizazio programaren kostua emandako laguntzaren %3koa izanen da, gehienez, eta kontu-sail independentean idatziko da proiektuaren aurrekontua banantzean. Sentsibilizazio jarduera zehatzei lotutako kostuak izanen dira betiere Estella-Lizarrako udalerrian egindakoak badira eta hasierako aurkezpenean sartuak izan badira.

i) Ezin izanen *da BEZ kengarria* dirugantza-gai diren gastutzat hartu.

j) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak ez du inoiz gaindituko -beste erakunde edo entitate publiko zein pribatuen laguntzekin batuta- egin beharreko proiektuaren kostua.

k) Ez dira bi proiektu diruz lagunduko toki kontraparte berekoak, lurralde eta onuradun berekoak direnean.

l) Ez dira finantzatuko 2021 baino lehen egindako gastuak.

9.- Diru-laguntzaren zenbatekoa, ematea eta legeria.

9.1.- Estella-Lizarrako Udalak 2021ean diru-laguntza deialdi honetarako gorde dituen baliabide ekonomikoak sentsibilizazio jarduerak egiteko eta garapen bidean diren herrialdeetako populazioetatik egoera sozial ahulean dauden eta talde bereziki ahula diren horien oinarrizko beharrianak asetzea behar duten proiektuetarako, 24.500 euro izanen dira gehienez. Laguntza horiek kontu-sail honen kargura ordainduko dira: 2399-482000 "Garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntzak", 2021 urtea.

9.2.- Diru-laguntzak Tokiko Gobernu Batzordeak emandako Ebazpenaren bidez erabakiko dira, norgehiagokako araubidean emateko prozeduran, diru-laguntza emanen zaie puntu gehien lortuko duten eskaerei, dagokien artikuluetan xedatutako irizpideen arabera, eta muga izanen da honekin lotuta dauden aurrekontu-sailletako kopuru esleituia.

9.3.- Diru-laguntzaren ordainketa honako era honetan burutuko da: diruz lagundutako kopurutik %80 aurreratuko da. Gainerako %20ren ordainketa-agindua eman ahal izateko ezinbestekoa izanen da diru-laguntzaren izapideak egin zituen unitateak ziurtatzea emateko erabakian eskatutako baldintzak bete egin direla.

9.4.- Diru-laguntzak emateko baldintza izanen da kreditu egoki eta nahikoa izatea ebazpena ematen den unean, Diru-laguntzei Buruzko Lege Orokorraren Arautegiaren 56. artikulua xedatzen duen bezala (887/2006 Errege Dekretua, uztailearen 21ekoa).

10.- Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

10.1. Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk, helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

10.2. Beste administrazio edo entitate batean, publikoa edo pribatua, estatukoa edo nazioartekoa diru-laguntza eskatu edo lortu bada Deialdi honetara aurkeztutako jarduera edo proiektua garatzeko, proiektuaren eskaerarekin aurkeztu den dokumentazioarekin batera azaldu beharko da zein da diru-laguntza eskatu dioten administrazioa edo entitatea, baita ere eskatutako eta, halakorik bada, emandako diru-kopurua.

11.- Itzulketaren prozedura

Itzulketaren prozedura emandako diru-laguntza itzultzeko, Diru-laguntzei buruzko, azaroaren 17ko, 38/2003 Legearen artikulua xedatutakoarekin bat egiten da.

12.- Helegiteak

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

12.1.- Berraztertze errekurtsoa, hautara, egintza agindu edo erabakia hartu duen udal organoari berari zuzenduta, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluek xedatutakoarekin bat.

12.2.- Zuzenik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Arlo bereko Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluari jarraikiz.

12.3.- Eta, hautara, gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, Erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

13.- Interpretatzeko eskumena

Deialdi honetan sortu ahal diren auzi guztien erabakia bakarrik Estella-Lizarrako Udalaren eskumena izanen da, eta oinarri hauetan aurrekusi ez den guztirako Diru-laguntzak arautzen dituen udal ordenantza orokorra aplikatuko da, halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-Laguntzei buruzkoa eta horren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan onartutakoa, baita ere, horrekin bat datorren gainerako arautegia eta aplikatzeko gokia dena.

14.- Datuen babesa

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren bat, deialdi honi heldu ahal izateko jasotako datuak Estella-Lizarrako Udalaren Gazteria eta Elkartasun Udal Zerbitzuaren fitxategi batean bilduko direla. Jakitera ematen dizugu baduzula datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea. Halako eskubidea gauzatzeko Entitate eskatzaileak egiten du, zuzenean eta Estella-Lizarrako Udalean.

15.- Deialdiaren argitalpena

Oinarri arautzaileak argitara emanen dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Estella-Lizarrako Udaletxeko ohar-taulan. Baita ere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko, 38/2003 Lege Orokorraren 18 eta 20.8 artikuluei jarraikiz, Diru-laguntzei buruzko datu-base Nazionalean argitaratuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Deialdi honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Estella-Lizarra, 2021eko apirilaren 8ean - Estella-Lizarrako Udaleko Alkateak, Koldo Leoz Garciandia

Eskabide orria

Garapen bidean daude herriei diru-laguntzak emateko deialdi publikoa. 2021 urtea

Izen-
deiturak:.....,NAN.....
.....Herria:.....Kalea:.....PK:.....
....., Telefonoa:.....Erakunde honen legezko ordezkari
gisa:.....IFK....., helbide soziala,
herria:....., kalea.....,
telefonoa:....., posta elektronikoa

ADIERAZTEN DU:

- Estella-Lizarrako Udaleko 2021eko garapen bidean dauden herriei diru-laguntzak emateko Deialdiaren oinarriak ezagutzen dituela.

- Nik ordezkatzan dudana GGKE/entitateak biltzen dituela diru-laguntzei buruzko Deialdi publikoaren Oinarrietan eskatzen diren baldintzak.

-Ordezkatzan dudana entitatea ez dagoela sartuta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak 13.2 artikuluan xedatzen dituen edozein debekutan.

Horregatik,

ESKATZEN DUT:

Diru-laguntza ematea proiektu honetarako edo hauetarako:

.....
.....

Horretarako, erantsi ditut eskatzen diren agiriak, eta egiazkoak direla aditzera ematen dut.

Estella-Lizarrarra, (data).....

Eransten diren agiriak:

—.....

—.....

Stua:

Garapen bidean dauden herriei diru-laguntzak emateko deialdia 2021

Eskabide eredua

GKE ESKATZAILEAREN DATUAK				
GKEaren izena			IFZ	
Helbidea (Kalea/Plaza)			Posta-Kodea	
Herria	Probintzia	Telefonoa	Faxa	Posta elektronikoa
Sortze data	Izaera Juridikoa			
Proiektuaren pertsona arduraduna (Izen-deiturak)			Kargua	
Posta elektronikoa			Telefonoa	Besterik
GKEaren ordezkari legala (Izen-deiturak)			Kargua	
Posta elektronikoa			Telefonoa	Besterik
GKEaren ordezkaria Estella-Lizarran balego (Izen-deiturak)			Kargua	
Posta elektronikoa			Telefonoa	Besterik

<p><u>Erantzukizuneko aitortpena</u></p> <p>Jn./Andrea.....NAN.....,GGKE honen ordezkari gisa.....ADIERAZTEN DU: 2021eko garapen bidean dauden herriei diru-laguntzak emateko Deialdiaren oinarriak ezagutzen dituela. eta Eskatzaileak diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean ez dagoela.</p> <p style="text-align: center;">(Lekua. data eta sinadura)</p>
--



Garapen bidean diren herrialdeetako laguntza deialdia. 2021 urtea

BAZKIDEAREN EDO TOKIKO AURKAKO ALDERDIAREN DATUAK				
Entitatearen izena			IFZ	
Helbidea (Kalea/Plaza)			Posta-Kodea	
Herria	Probintzia	Telefonoa	Faxa	Posta elektronikoa
Sortze data	Izaera Juridikoa			
Proiektuaren pertsona arduraduna (Izen-deiturak)			Kargua	
Posta elektronikoa			Telefonoa	Besterik

PROIEKTUAREN LABURPENA		
Proiekturaren izenburua		Herri hartzailea
Kokapen geografikoa		
Proiektuaren deskripzio laburra (5 lerro gehienez)		
Hasteko data	Amaitzeko data	Lankidetzaren Sektorea. CRS kodea
Zeintzuk dira alderik nabarmenak proiektua egiten den eskualdeko testuinguru geografiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan?		

FINANTZA- ETA AURREKONTU-BALIABIDEAK				
(Zenbatekoak eurotan adieraziko dira, eta horrela beharrez gero, urteka banatu)				
AURREIKUSITAKO FINANTZIATZIOA				
	2021			
Estella-Lizarrako Udalaren ekarpena				
Nafarroako Lankidetzaren Fondoaren ekarpena				
Beste Udal batzuen ekarpena				
Nafarroako Gobernuaren ekarpena				
Estatuko Administrazioaren ekarpena				
Europako Erkidegoaren ekarpena				
Autonomia-Erkidegoaren ekarpena				
Herri hartzailearen Tokiko Kideen ekarpena				
Berezko Fondoen ekarpena				
Finantzatzeko beste iturri batzuk (zehaztu)				
SARRERAK OSOTARA				
GASTUEN AURREKONTUA				
	2021			
Materiala, ekipamenduak eta hornigaiak				
Eraikuntza				
Bidaiak, ostatatzea eta dietak (tokiko langileak).				
Administrazio-gastuak				
Sentsibilizazio gastuak				
Beste gastu batzuk (zehaztu)				
GASTUAK OSOTARA				
Estella-Lizarrako Udalari eskatutako diru-laguntza				

1.- KALITATE TEKNIKOA ETA PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA

1.- 1.- Proiektuaren helburuak

1-2.- Helegiteak: Aurreikusten diren baliabide giza, tekniko, material eta hornitzeko esanguratsuenak.

1-3.- Aurreikusitako jarduerak

1-4.- Populazio onuradunaren datuak

1-5.- Zein da egin nahi den ebaluazio prozesua ekintza egiten den prozesua osoan barna? Adierazi, baldin badago, erabiliko diren ebaluazio adierazleak.

1-6.- Proiektuaren iraunkortasuna etorkizunean: bideragarritasun politikoa, bideragarritasun teknikoa, erakunde-bideragarritasuna eta bideragarritasun ekonomikoa.

2.- INPLIKATUTAKO ALDERDIEN GAITASUNA

2-1.- GGKE eskatzailearen esperientzia eta haren jarraipenerako gaitasuna

2-2.- Tokian tokiko bazkideak populazio onuradunarekin duen esperientzia eta gaitasuna

2-3.- GGKE eskatzailearen eta tokiko bazkidearen arteko lankidetzaren proiektuetan

2-4.- Pertsona onuradunek parte hartzea proiektua proposatu, gauzatu eta kudeatzeko lanetan.

2-5.- Proiektua zuzentzen zaion herritarren ordezkari den tokiko erakunde baten partaidetza edo bermea.

2-6.- Estella-Lizarrako Udalak diruz lagundutako ekintzen jarraipena

3.- GIZARTE-HELBURUAK ETA PROIEKTUAREN EDUKIAK

3-1.- Genero-ikuspegia proiektuan txertatzea eta emakumeen bizi-baldintzen hobekuntza eta emakumeen eskubideak eta aukerak bultzatu.

3-2.- Ingurumenaren babes orokorra eta jarduerak ingurumenera egokitzea

3-3.- Talde bereziki ahulak: herri indigenak, gutxiengo etnikoak, iheslariak eta haurrak

3-4.- Proiektuak izanen duen eragina herri hartako politiketan edo/eta zerbitzu publikoetan.

3-5.- Giza eskubideak bultzatzea eta babestea

4.- EKINTZAK HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEKO ESTELLA-LIZARRAN

4-1.- Lankidetzeta - Kooperazioa Estella-Lizarrako edozein ikastetxerekin. Egindako ekintzak, ikastetxeko bermea

4-2.- 2019 eta 2020. urteetan Lizarran antolatutako sentsibilizazio ekintzengatik

4-3.- 2021. urtean Lizarran egin beharreko sentsibilizazio ekintzak, deialdiaren bosgarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera

**ESTELLA-LIZARRAKO UDALAK FINANTZATZEN DITUEN
GARAPENERAKO PROIEKTUAK GAUZATZEAREN GAINEKO
AZKEN MEMORIA,**

GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI

2021ko deialdia

Proiektuaren izenburua:

GGKEaren izena:

Proiektua finantzatu zuen deialdiaren urtea:

Txostenak barne hartzen duen aldia:

Hasiera eguna: Amaiera eguna:

Txostena egin zen data:

Harremanetarako pertsona, telefono zk.:

MEMORIA EGITEKO JARRAIBIDEAK

Diru-laguntza jasotzen duen GGKEek, oro har, honako bi puntu hauek hartu behar ditu kontuan:

1. Udalaren solaskide bakarra izanen da diru-laguntza jaso duen GGKE. Hau da, GGKE onuradunak eginen ditu txostenak eta bestelako komunikazioak, eta ez tokiko GKEak (kontraparteak)
2. Diru-laguntza jasotzen duen GGKEak dokumentu honi erantsitako ereduaren arabera bidali beharko ditu txostenak; osorik beteko du, jarraian azaltzen diren jarraibideak betez. GGKEak erreportaje grafikorik, bertako GKEaren gutunik edo bestelakorik bidali nahi badu, eranskin moduan sartuko ditu, baina jarraipen txostenaren ereditik argi berezita.

Proiektu gauzatuaren gaineko azken memoria Estella-Lizarrako Udaleko Erregistro Orokorrean eman beharko da (Sorkunde Garbiaren Pas. 1, 31200 Estella-Lizarra) formatu digitalean edo paperetan, horrez gain, posta elektronikoko honetara ere bidaliko da, juventud@estella-lizarra.com, 3. taulako kalkulu orria, Fakturen Erregistroa.

Jarraian, puntuz puntu azaltzen da jardueren txostenaren eredian eskatzen den informazioa.

AZALA

GGKEaren izena, proiektuaren izenburua, txostenaren data eta harremanetarako pertsona: ez da azalpenik behar, edukia argi dago.

Txostenak barne hartzen duen aldia: hilabetea eta urtea adierazita.

I. PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA

1. Azaldu den aldirako aurreikusi diren helburuak eta gauzaturiko jarduerak. Azaldutako aldia bukatzen denean, aldi horretarako aurreikusi diren helburuak laburbildu behar dira. Logikoa denez, bat etorri behar dute atal honetan azaldutakoak eta diru-laguntza eskatzeko asmoz udaletxean aurkeztu zen proiektuaren dokumentazioan adierazitakoak.

2. Proiektua gauzatzean gehitu behar izan diren doikuntzak.

Atal honetan, gertatu diren desbideraketak azaldu behar dira; aldi horretan benetan egindakoaren eta diru-laguntza eskatzeko asmoz udaletxean aurkeztu zen proiektuaren dokumentazioan adierazitakoaren artean izandakoak, alegia. Gatazka armatuen, hondamendi naturalen eta bestelako ustekabekoen ondorioz gertatzen dira normalean

Garapen bidean diren herrialdeetako laguntza deialdia. 2021 urtea

desbideraketa horiek; proiektua idazten denetik benetan gauzatzen hasten den arte denbora jakin bat igarotzen delako. Baina desbideraketarik egon ez bada, utzi hutsik atal hau.

3. Azaldu den aldi horretan egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak.

Azaldu den aldian zehar zein jarduera egin den eta jarduera horiek zein emaitza eman duten laburtu behar da.

4. GKEak lortutako emaitzen gainean egindako ebaluazioa.

GKEak atal honetan azaldu behar du proiektuak zein eragin izan duen komunitate onuraduneari; proiektua gauzatzeak ekarri dituen hobekuntzei dagokienez interesekotzat jotzen duena azaldu dezake, baita egiteko izan diren arazoak edo proiektua gauzatzearen alderdi txarrak ere.

II. FINANTZA ETA KONTABILITATE TXOSTENA

1. TAULA. LABURPEN OROKORRA

1.- Onartutako diru-laguntza: Udalak guztira eman duen diru-laguntza. "Data" izeneko zutabea ez da bete behar.

2.- Sarrera eguna. Zutabea idazten da zein egunetan sartu zen diru-laguntza GKEaren kontuan.

3- Txostenean justifikatu den gastua. Azaldu den aldian zehar justifikatutako gastua, guztira.

4- Jasotako diru-laguntzaren saldoa. Nola kalkulatu: jasotako diru-laguntzari txosten honetan eta aurrekoetan justifikatu den gastua kendu behar zaio.

2. TAULA. PROIEKTUA GAUZATUKO DEN HERRIALDERA TRANSFERITU DIREN FUNTSEN ZERRENDA.

Bidalitako zenbatekoa (eurotan): dibisak erosteko zenbatekoak erregistratu behar dira (eurotan).

Dibisaren zenbateko baliokidea: aurreko atalean zehaztutako euroekin erosi den dibisa kopurua (normalean dolarretan edo liberatan).

Truke mota: dibisa bakoitza bertako monetara aldatzeko eragiketa bakoitzarengatik lortutako erlazioa. Bigarren txostena bada, proiektua hasi zenetik transferitu eta jaso diren kopuruak adierazi behar dira, eta ez bakarrik bigarren txostenekoak.

3. TAULA. FAKTUREN ERREGISTROA.

Estella-Lizarrako Udalak emandako diru-laguntzari egotzi dakizkioken gastuak

Taula honetan lau zutabe daude. "Kontzeptua" izenekoan gastuaren kontu-sailaren izena idatzi behar da. Adibidez, "Eraikitze eskulana" atalean kopuru jakin bat gastatu bada, izenburu hori idatzi behar da "Kontzeptua" zutabeko "Langileak" atalean. Ureztatzeko ekipamenduren bat erosi bada, "Ekipamendua" kontzeptuaren azpian "Ureztatzeko ekipamendua" idatzi behar da. Horrela, gastua ekarri duten kontu-sail guztien zerrenda beteko litzateke, kontzeptuka ordenatuta. Kontu-sail bakoitzaren fakturaren kopia aurkeztu behar da. "Kontzeptua" zutabearen zehazten den zerrendaren arabera ordenatu behar dira fakturen kopia guztiak, eta lehenengotik hasita zenbatu behar dira.

"Fakturaren ordena zk." zutabearen fakturaren zenbakia idatzi behar da, dagokion gastuaren kontu-sailaren maila berean.

Azkenik, gastua Nafarroan edo proiektua gauzatu den herrialdean egin den kontuan hartuta idatzi behar da zenbatekoa "Balioa eurotan" edo "Balioa bertako monetan" zutabearen

4. TAULA. AURREIKUSITAKO GASTUEN ETA BENETAN EGINDAKOEN ARTEKO KONPARAZIOA.

Atal honetan ongi gogoratu zenbatekoak eurotan eman behar direla bi zutabeetan, eta "Aurreikusitakoa" zutabearen idatzi duzunak bat etorri behar duela diru-laguntza eskatzeko asmoz udaletxean aurkeztutako proiektuaren dokumentazioan adierazitakoarekin. Bien artean alde handiak badaude, taularen azpian azaldu behar dira.

5. TAULA. BESTE FINANTZATZAILE BATZUEK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI EGOTZI BEHARREKO GASTUEN LABURPENA.

Taula honetan labur zehaztu behar dira udalarena ez den finantzaketaren bidez proiekturako izan diren gastuak. Ez da gastuaren zati honen gaineko fakturarik aurkeztu behar, ezta "Langileak", "Ekipamendua" eta bestelako kontzeptuak banakatu ere. Nahikoa da beste finantzatzaile batzuek emandako kopuruak zehaztea.

III.- ADMINISTRAZIO AGIRIAK

GGKE onuradunak honako administrazio agiri hauek bidali behar ditu:

1.- Fakturen zerrenda: jatorrizkoak eta fakturen kopiak dira, kontabilitateko 3. Taulan jasota bezala zenbatuta.

Faktura bidez justifikatzen ez diren **administrazio gastuak** diru-laguntza jasoko duen GGKEaren legezko arduradunaren egiaztagirien bidez justifikatu behar dira, kontzeptu horri esleitutako kopurua adieraziz. b) Proiektuaren zeharkako kostuen ehunekoak ez du kopuru osoko %7 gaindituko. Zeharkako kostuak izanen dira GKEaren eta bertako kontrako alderdiaren gastu administratiboak, proiektuaren formulazioan, jarraipenean, ebaluazioan eta hedapenean sorburu dutenak. Kontu-sail independentean idatziko da proiektuaren aurrekontua banantzean.

c) Sentsibilizazio programaren kostua emandako laguntzaren %2koa izanen da, gehienez, eta kontu-sail independentean idatziko da proiektuaren aurrekontua banantzean.

2.- Fakturen kopiak egiazkoak direla frogatzeko agiriak: GGKE onuradunak idazki labur batean ziurtatu behar du fakturen kopiak egiazkoak direla. Baina jatorrizko fakturak bakarrik aurkezten badira, ez da horrelakorik erantsi behar.

3.- Kanpora egindako transferentzien kopia: bankuko kontu-laburpenaren kopiak dira, eta horietan trukatu den kopurua, igorlea eta hartzailea zehazten dira. Atal honetako informazioak bat etorri behar du kontabilitateko 2. taulan idatzi denarekin.

4.- Ekipamenduaren bidalketa: proiektua gauzatzeko den herrialdera ekipamendua bidaltzen bada, bertako kontrapartearen ziurtagiria erantsi beharko da. Ziurtagirian ekipamendua jaso dela bermatu behar da.

I. PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA

1.- Azaldu den aldirako aurreikusi ziren helburuak eta egin diren jarduerak.

2.- Egin behar izan diren doikuntzak.

3.- Azaldu den aldi horretan lortu diren emaitzak.

4.- GGKEak lortutako emaitzen gainen egindako ebaluazioa: alderdi positiboak eta negatiboak, proiektua gauzatzean aurkitutako zailtasunak, etab.

5.- Estella-Lizarran egindako sentsibilizazio-jardueren memoria.

II. FINANTZA TXOSTENA

1. TAULA: LABURPEN OROKORRA

	Euroak	Data (eguna/hil./urtea)
Onartutako diru-laguntza		
Noiz sartua		
Txosten honetan justifikatu den gastua		
Jasotako diru-laguntzaren saldoa		

2. TAULA: ESKUALDATUTAKO FUNTSEN ZERRENDA

Data	Bidalitako kopurua eurotan	Pareko kopurua dibisetan	Truke tasa
GUZTIRA			

3. TAULA: FAKTUREN ERREGISTROA

(Estella-Lizarrako Udalak emandako diru-laguntzari egotzi dakizkikeen gastuak soilik)

Aipatu informazioa paperan edo digitalean aurkezteaz gain, euskarri informatikoan ere bidaliko da. (Kalkulu orria posta elektronikoaren bidez, helbide honetara: juventud@estella-lizarra.com)

KONTZEPTUA DESKRIPZIOA	FAKTURAR EN ORDENA ZK.	HORNITZAIL EA IFZ/IFK	DATA FAKTURA	FAKTURA ZK.	ORDAINKE TA DATA	BEZ EZ KENGARRIA	BEZ KENGARRIA	ZERGA- OINARRIA	BALIOA TOKIKO MONETAN	BALIOA EUROTAN
- Langileak . Erbesteratuak . Herri hartzailea										
-Materiala, ekipamenduak eta hornigaiak										
- Eraikuntza										
- Bidaiak eta egonaldiak										
- Administrazio eta kudeaketa gastuak										
- Besterik										
GUZTIRA										

Fakturak ordena korrelatiboan zenbakitzen dira (1etik hasita), eta zenbaki bakoitza "Fakturaren ordena zk.a" zutabearen jartzen da, kasuan kasuko gastuaren deskribapenaren ondoan.

4. TAULA: AURREIKUSITAKO ETA BENETAN EGINDAKO GASTUEN ARTEKO KONPARAZIOA

KONTU-SAILA	AURREIKUSITAKOA (Euroak)	BENETAN EDINDAKOA (Euroak)
<ul style="list-style-type: none"> - Langileak: <ul style="list-style-type: none"> . Erbestera tuak . Herri hartzailea - Materialak, ekipamenduak eta hornigaiak - Eraikuntza - Bidaiak eta egonaldiak - Administrazio eta kudeaketa gastuak - Besterik 		
GUZTIRA		

Desbideraketarik izan bada, azaldu ondoren horren zergatia.

5. TAULA: BESTE FINANTZATZAILE BATZUEK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZARI EGOTZI BEHARREKO GASTUEN LABURPENA

FINANTZATZAILEA	BALIOA EUROTAN	BALIOA BERTAKO MONETAN
-		
-		
-		
-		
GUZTIRA		

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Orri honetatik aitzina honako dokumentazio administratibo hau gehitu behar da:

- 1.- Egindako gastuaren faktura frogagiriak, jatorrizkoak edo kopiak, (gastu administratiboak barne, halakorik bada). TAULAK.
- 2.- GGKEaren **JATORRIZKO agiria**, fakturen kopiak egiazkoak direla frogatzen duena.
- 3.- Kanpora egindako transferentzien kopia eta tokiko GKEaren **JATORRIZKO** ziurtagiria, dirua jaso duela egiaztatzeko.
- 4.- Bertako GGKEaren ziurtagiria, bidali den ekipamendua jaso dela frogatzen duena (soilik halakorik balego).